

ANDOAIN / Literatura solasaldia, euskaraz, Goizalde Landabaso idazlearekin

Andoaingo Udal Liburutegiak literatur solasaldiak antolatu ditu berriz ere. Zenbait pertsona elkartu eta denek irakurri duten liburuaz aritzea eta ondo pasatzea du xedea. Oraingo honetan, Goizalde Landabaso kazetari eta idazle bilbotarrak idatzi eta Aritz Eiguren irudiz hornitu duen 'Bränskint'(Txalaparta, 2011) liburua hartuko dute esku artean. Datorren solasaldia urriaren 29an, 19:00etatik 20:30etara, Bastero Kulturguneko bilera gelan izango da. Izena emateko, deitu 943 300 615 telefonora edo liburutegia@andoain.org helbide elektronikora idatzi.